



ORAINA ULERTZEKO ATZERA BEGIRADA

Etzi, Maiatzaren 1a, Langileen Nazioarteko Eguna izango da; historiari begirada egitea da onena jatorria ulertzeko »4-5

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteartea
2008-04-29

VI. URTEA 1.420. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Korrikalariak lanean herenegun Amasa inguruan; Garin irabazlea laugarren postuan doa. ANDER OTEZABAL

NEREA AMILIBIA ETA JUAN MARI GARIN IRABAZLE LOATZOKOAN

AMASA-VILLABONA Amilibiak 53 minutu eta 31 segundo behar izan zituen eta Garinek, 43 minutu eta 32 segundo; guztira 43 parte-hartzailek hartu zuten parte Loatzoko XVI. krosean 4

Antolatzaileak «gustura» Dantzari Txiki Egunarekin

IKAZTEGIETA Eskualdeko 175 dantzari elkartu ziren herriko plazan; emanaldi «ederra» eskaini zuten gazteek jendetzaren aurrean 7

39 enpresa sortu ziren iaz autolaguntza zerbitzuekin

TOLOSA Eskualdeko ekintzaile eguna antolatuta dute maiatzaren 20an, «egindako lana eskertuz» 3

Aimar Irigoien nagusi Gorostidi Harria Txapelketan.

 **MIRARI**
Parafarmazia

* HAURREN ELIKADURA ETA HIGIENEA

* HELDUEN EDERTASUNA ETA HIGIENEA

* HAURREN ETA HELDUEN DERMOKOSMETIKA



Kale Berria, 56 • Billabona • Tel.: 943 692 351
parafarmazia.mirari@telefonica.net



Gizarte parte-hartzeari buruzko prestakuntza-ikastaroak

Donostialdea Maiatza. Astelehena 8, asteartea 9 eta asteazkena 10.
19.00etatik 21.00etara Donostiako Lugaritz Kultur Etxean.

Goierri Maiatza. Astelehena 8, asteartea 9 eta asteazkena 10.
19.00etatik 21.00etara Ordiziako Barrena Kultur Etxean.

izena emateko: **Deitu** 943 25 10 05 **idatzi** partehartu@baketik.org **Serbi** www.baketik.org

Laguntza:            



Maiatza saltsan ekimenaren aurkezpenean, Marian Lazkano Zizurkilgo alkatea eta Ainhoa Larrea kultur teknikaria. E.E.

Kontzertuak, hitzaldiak eta erakusketak izango dira Maiatza Saltsan-ean

Zizurkil » Igande honetan, Andatza Egunaekin emango diote hasiera ekitaldiz betetako hilabeteari.

ESTIEZEIZAA

Ekitaldiz betea dator oraingoan ere maiatza, Zizurkil. Aurten-goan ere, kontzertuak, zine emaldiak, hitzaldiak eta erakusketak izango dira, besteak beste. Maiatza Saltsan ekimena duela urte asko jarri zuten martxan, eta urtez urte gauza berriak eta interesgarriak prestatzen dituzte.

Hilabete honetako ekintzak direla eta, hauek biltzeko aukeratu duten lelea *Argi-ilunak* da. Bizitzak dituen bialderdi hauek erakutsi nahi izan baitituzte. Ainhoa Larrea kultur teknikariak azaldu bezala, «alde batetik, kontzertuak, hitzaldiak eta horrelakoak argiak izango dira. Iluntasuna erakusten duena da berriz, *Krisi ahaztuak*. *Bizitza ezikusiak* argazki erakusketak izango litzateke».

Saltsa guztiek behar izaten dute perrexila, eta Zizurkilgoan Ken

Zazpi taldearen kontzertuak izango da. Hau maiatzaren 10ean izango da eta sarrerak salgai daude dagoeneko. Jarraitzaileek Aurrera plazako Udal bulegoetan eros ditzakete txartelak 10 eurotan.

Andatza Eguna igande honetan izango da. Hasteko, 11:00etan, hamaitakoa izango da eta ondoren herri kirolak, haur nahiz helduentzat. 14:00etan bazkaria izango da eta honez gain, goizean zehar, erromeria izango.

Hilabeteko hurrengo ekitaldia maiatzaren 5ean izango da. Hemen, Maite Frankon, Hernandezena Ipuin Lehiaketan parte hartutako zizurkildarren ipuin sari-

tuak kontatuko ditu. Zizurkil, nekazal tradiziozko herria izanda, ezin ahaztu San Isidro eguna ospatzea. Honenbestez, maiatzaren 15ean, ohiturari jarraituz, meza, aizkolari eta harri-jasotzaileen saioa eta bazkaria izango dira.

Argazki erakusketak

Bi argazki erakusketak izango dira. Batetik, Mugarik Gabeko Medikuek antolatutako *Krisi ahaztuak*. *Bizitza ezikusiak* erakusketak gatazka armatuak eta izurriteak jorrratzen ditu. Bigarrena Segundo Montes Komunitatearena da. Izan ere, Zizurkil, Aduna eta Asteasu honekin anaieratuta daude.

» EGITARAUA

- **Maiatzak 4, igande.** Andatza eguna.
- **Maiatzak 5, astelehena.** Hernandezena ipuin lehiaketako liburuaren aurkezpena eta Maite Franko ipuin kontalariaren saioa izango dira, 7-10 urte bitarteko haurrentzat 18:00etan, Atxulondon.
- **Maiatzak 10, larunbata.** Ken Zazpi, 22:00etan, Intxaur frontoian.
- **Maiatzak 11, igande.** Herri Urrats.
- **Maiatzaren 12tik 16ra.** *Krisi ahaztuak*. *Bizitza ezikusiak* erakusketak. Mugarik Gabeko Medikuek elkarteak antolatutako argazki erakusketak ikusgai izango da Atxulondo Kultur Etxean. Maiatzaren 19tik 23ra berriz, Iriarte Kultur Etxean izango da hau.
- **Maiatzak 14, asteazkena.** Zizurkilgo haur bertsolarien emanaldia. 18:00etan Atxulondo Kultur Etxean izango da.
- **Maiatzak 15, osteguna.** San Isidro eguna.
- **Maiatzak 16, ostirala.** Padro M. Otaño *Atzo eta gaur* bertso eta musika ikuskizuna 18:30ean Atxulondo Kultur Etxean, Otaño ikastetxearekin 25. urteurrenaren barnean antolatuturik.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Iturgina.** Iturgin lanetarako pertsona behar dugu. Interesatuak deitu 685 22 70 58ra.

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Tolosa erdian bi logelako etxea salgai, egoera onean, oso merkea. Interesatuak deitu 665 70 86 35 telefono zenbakira.

GALDUTAKOAK

■ **Kamara.** Igaratzatik minetarako idean argazki kamara bat galduten igandean. Canon Ixus 60. Aurkituz gero telef: 66057914.



Beotibar Zesta Punta taldeko kideak Beotibarren, joan den igandean. HITZA

Hirutatik hiru irabazi dituzte Tolosako Zesta punta jokalariek

Tolosa » Mutrikuko taldea izan zuten aurkari igandean; kadete, jubenil eta nagusien mailan lehiatu ziren.

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Herri Arteko Txapelketako lehen jardunaldia jokatu zen herenegun, Beotibar pilotalekuan. Tolosak aspaldiko usteetan txapelketa honetan atera duen talde bakarra lehiatu zen bertan. Txapelketa hau hiru mailatan jokatu da, kadete, jubenil eta nagusien artean.

Mutrikuko taldea izan zen eskualdekoen aurkaria. Tolosako

taldea Beotibar Zesta Elkarteak pilotariak osatzen dute. Hala, es-trenaldi ezin hobea eman diote Tolosaldeko pilotariak txapelketari, 3-0 izan baitzen emaitza.

Kadeteen mailan, 30-21 irabazi zieten Zaldua eta Telleriak, Paredes eta Collazori. Jubeniletan ere eskualdekoak izan ziren garaile. Izagirre eta Telleria 35-9ko emaitzarekin gailendu zitzaizkien Elezgaray eta Goenagari. Azkenik, hirugarren partidan 35-26 izan zen azken emaitza. Artetxe-Trapazos bikoteak Gutierrez eta Elezgaray izan zituzten aurrez aurre.

Hasiera bikain honen ostean, maiatzaren 11n, Beotibar pilotalekuan bertan Donostiako ena aurka lehiatuko dira Tolosakoak.

Zailtasunik gabeko garaipena seniorrentzat

Tolosa » Datorren asteazkenean finala Bilbon jokatuko dute Takeko seniorrek; irabazteak maila mantentzea ziurtatzen die.

ERREDAKZIOA

Datorren asteazkenean finalaren aurretik sufrimendurik gabe irabazi zuten azken saikatuaren aurka Takeko seniorrek. Joaneko partidan puntu bakarrek errenta lortu zuten tolosarrek (67-68) eta bizkaitarren egiturak kalte dezentegintzen zionez tolosarren jokoari, adi ibili beharra zegoen garaipena etxean gera zedin.

Lehen laurdena izan zen lauetatik parekatuena. Bizkaitarrek azken aukera zuten maila mantentzeko eta garaipena ezinbestekoa zuten horretarako. Dena den, partidan osoan tolosarrek egin zuten defentsa bikainari esker, 48 puntu geratu ziren, eta puntu hauek

soilik sartuta, ia ezinezkotzat jo daiteke garaipena lortzea.

Defentsaz gain erasoan ere nahiko fin ibili ziren tolosarrek. Honen lekuko dira partidan sartutako 88 puntuak, normalean 70 puntutan ibiltzen baitira.

Garaipen erraza lortu arren, tentsioa mantendu beharra dago, beste partidetan izan diren emaitzak ez baitira tolosarrentzat egokienak izan. Jaitsiera puntu batera dago eta ez dago hanka sartzetik geratzen diren ondorengo hiru partidetan. Helburua are eta zailagoa da hiru partida hauetatik bi etxetik kanpo direla kontutan hartuz gero.

Final horietako lehena egunez aldatua izan da eta asteburuan jokatuko dute Bilbon 21:00etatik aurrera. ATE-Asesores La Salle aurkari zuzena dela kontutan hartuz, garaipen batek maila mantentzeko helburua ia ziurtatzea ekarriko luke.

Autolaguntza zerbitzuak lagunduta 39 enpresa sortu ziren 2007an

Ekonomia » Maitzaren 20rako eskualdeko ekintzaile eguna antolatuta dute, «egindako lana eskertzeko asmoz».

INIGO TERRADILLOS

2007ko Autoenplegu memoria aurkeztu zuten atzo, eta bertako datuak ikusita, «eskualdean mugimendua dagoela» nabarmendu zuten Joxe Luis Urdangarin Tolosaldea Garatzeneko kudeatzaileak. Eskualdeko garapen agentziaren Autoenplegu zerbitzuak pasa den urtean 51 proiektu aztertu zituen, eta horietatik 39 enpresa daude egun martxan; beste 4, abian jartzeko prozesuan daude, eta beste 8 ez dira aurrera aterarazi desberdinegatik.

Autoenplegu programaren bidez, enplegua sortzeko helburua du Tolosaldea Garatzenek. Zerbitzuak enpresa proiektu bat aurkezten duenari, ekintzaileari, asmo hori aurrera eramateko behar duen laguntza ematen dio. «Tutoretza pertsonalizatuaren bidez ematen da laguntza, ideia, aldagai garrantzitsuak, arriskuak eta abar aztertuz», zehaztu zuten Urdangarin. Hala, ideien bideragarritasuna zehaztu eta gero, Negozio Plana egin, eta behar den finantzaketa bilatzera jotzen da. Finantzaketari dagokionez, hainbat banku eta kutxekin hitzarmenak ditu Tolosaldea Garatzenek ekintzaile gazteentzat finantzaketa bigunak egokitzeko. Enpresa abian jarri eta gero ere, jarraipena egiten du Autoenplegu zerbitzuak, «enpresa bat eratzean ezinbestean sortzen diren arazoak konpondu eta zalantza argitze».

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Berrikuntzarako eta Jakintzaren



Jon Zubeldia eta Joxe Luis Urdangarin, atzo, aurkezpenean. I.T.

Gizarterako Departamentuaren partaidetza ekonomikoarekin kudeatzen da zerbitzua hau, eta enplegua sortzeaz gain, aholkularitza eskaini, autoenplegua lan ekimenduetan bultzatu eta mikroenpresak eratzeari eta autoenpleguari prestakuntza eta laguntza ematea du helburu. Prestakuntzari dagokionez, iaz, esaterako, 3 enpresa kudeaketa ikastaro antolatuta zituen Tolosaldea Garatzenek Eusko Jaurlaritzako Enplegu Sailarekin batera, eta 39 ekintzailek hartu zuten parte.

Eskatzaileen profila

Pasa den urtean euren proiektua aurkeztu zuten ekintzaileen adina 25-35 urte artekoa zen; Tolosaldeko herriren batekoak ziren, prestakuntza maila ertainekoak, eta aldez aurretik lan esperientziaren bat izandakoak. Tolosaldea Garatzeneko Autoenplegu zerbitzuko arduradunak Jon Zubeldiak 45 urtetik gora dituzten ekintzaileen adibideak ere badirela azaldu du, «hain zuzen ere, 6 enpresa daude horietatik birenak».

76 lanpostu berri

Pasa den urteko 39 proiektu horiek abian jartzeko 3.235.209,44 euroko inbertsioa egin dute, eta 76 lanpostu sortu dira. Proiektu bakoitzean, batez beste, 82.954,08 euroko inbertsioa egin da, eta 1,94 lanpostu sortu dira. 39 enpresa horietatik, 28 enpresari bakarrekoak dira, 8 Ondasun Elkarteak eta 3 Sozietate Mugatuak. Sektoreka, berriz, 16 (%41,02) zerbitzuen alorrekoak dira, 13 (%33,33) txikizkako merkataritzakoak, 4 (%10,25) ostalaritzakoak, 3 (%7,69) eraikuntza alorrekoak eta 3 (%7,69) industria sektorekoak.

Egun, eskualdean, 4.125 enpresa daude. Horietatik, %93a 10 langiletik beherakoak dira; 10 eta 50 artekoak %6a dira eta 50 langiletik gora dituztenak, berriz, %1a. Azken 5 urteetan sortu eta jarraitzen duten enpresak %65a dira, eta 1995ean sortu eta egun jarraitzen dutenak, %28a dira.

Bestalde, 188 lagunengoa kontsultak hartu zituzten iaz Autoenplegu zerbitzuan, eta horien artean etorkinen aldetik izan duten gora-

» ZENBAIT DATU

- **Kontsultak.** 188 lagun joan dira.
- **Proiektuak.** 51 aztertu dituzte.
- **Sortutako enpresak.** 39.
- **Sortzeaz daudenak.** 4.
- **Sortutako lanpostuak.** 76.
- **Inbertsioa.** 3.235.209 euro.

Enpresa berriak sektoreka

- **Zerbitzuak.** 16 (%41,02).
- **Merkataritza.** 13 (33,33).
- **Ostalaritza.** 4 (10,25).
- **Eraikuntza.** 3 (%7,69).
- **Industria.** 3 (%7,69).

Enpresen egitura

- **Enpresari bakarra.** 28.
- **Sozietate Mugatua.** 3
- **Ondasun Elkarteak.** 8.

kada ere nabarmendu nahi izan dute. Egindako kontsultak autoenpleguari buruzko informazioa, enpresak eratzeko laguntzak eta diru laguntzak, finantzaketak, arazo juridikoak eta bideragarritasunaz izan dira, besteak beste. «Halaber, aurreko urteetan eratutako 26 enpresen jarraipena ere egin dugu, beren bilakaerako lehen urratetan aholkularitza eskaintzeko».

Iaz sortutako 39 enpresa horietako 3 adibide ere izan ziren atzoko aurkezpenean, Gugu apiedeobra barne dekorazio enpresa, Hamai-kaweb Diseinua eta Hispazone aldizkari digitaleko kideak, hain zuzen. Hiru enpresa hauek pasa den urteko martxoan sortu zuten Enpresa zentroan dute bulegoa, Paper Eskolan, eta 3 urte bete arte bertan egoteko aukera izango dute.

Ekintzaile eguna

Bestalde, maiatzaren 20an eskualdeko ekintzaile eguna ospatuko dute, pasa den urtean Tolosaldea Garatzenen laguntzarekin sortutako enpresa horien lana eskertzeko asmoz.

Laburrak

Ezker abertzaleak batzarrera deitu du

POLITIKA » Etziraiko batzarra deitu du ezker abertzaleak. Bilerak 20:00etan izango da, Kultur Etxean. Batzar honetan, besteak beste, hurrengo hilabeteetarako eronka nagusiak aztertuko dituzte. «Bizi dugun momentu politikoa garrantziaz kontutan hartuta», bertan partehartzera animatu nahi dituzte herritarrak.

Sorospen ikastaroa antolatuta du DYAK

GIZARTEA » Tolosan Sorosle eta Lehen Sorospen ikastaro berri bati hasiera emango dio DYAK Gipuzkoak. Ikastaroaren iraupena 3 astekoa da, astelehenean ostiralera 19:30etik 21:30era, eta DYAKo Dezkatari izango da (Larraendi 7, behean). Ez da beharrezkoa aurrez ezagupenik izatea. Egunerokotasunean aurreratu dituzte arrisku egoerei nola erantzun irakatsiko dute: Bihotz eta birika suspertuta, zauriak, hausdurak, erredukak... Ikastaro amaierako frogak gaitzitzen dituenak, DYAKo Gipuzkoak eskeintzen duen Sorosle Titulua eskuratzeko aukera izango du. Ikastaro hau gaitzitzen duenak, EHUra 2 kreditu jasotzeko aukera ere izango du. Matrikularen kostea, 75 eurokoa da. Izena emateko edo informazio gehiago jaso nahi duenak 943 46 46 22 telefono zenbakira deitu beharko du.

Kontzertuak etzi, Apirila Gorriaren baitan

GIZARTEA » Apirila Gorriari amaiera emateko eta maiatzaren lehena Langileen Eguna dela eta, kontzertuak antolatuta ditu Otsabi Gazte Lokalean (Igaralde kalea, 4) etzira, 18:00etatik aurrera. Tolosaldeko Sanblasiko Gazte Asanbladak. Lasarteko Desperbio taldea ariko da zuzenean, eta baita beste talde bat ere.



«Elkarrekin ikasi genuen. Bardedekorazioa/Feng Shui lantzen dugu. 6 hilabete daramatzagu laena, eta oso gustura gaude»

GARBIÑE MARTIARENA ETA ITSASO IRAZUSTABARRENA
Gugeu apiedeobra



«LH institutuan ikasten genuen biok. Gero master bat egin genuen; urte eta erdi daramagu lanean diseinu grafiko eta publizitatea lantzen»

IOSU SANCHEZ ETA OSCAR GESTEIRA
Hamaikaweb Diseinua



«Informatikari buruzko aldizkari digitala da. Oso gutxi daude horrelakoak, Espainian, esaterako, 4 edo 5 baino ez. Askok zaletasun bezala zuten»

MIKEL AGIRRE
Hispazone aldizkari digitala

Tolosako Udala
IRAGARKIA

Tolosako Udaltzatik, 2008ko martxoaren 18an egindako bileran, hasierako onepena eman zion Hiru Ordenazioko Plan Orokorreko Itaskungo Aldapa 6 eta 8 Hirigintzako Egitaritza Hitzarmenaren proposamenari, Migel Maria Telleria, bere emaztea eta semeak aurkeztuak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko Zazpigarren Xedapen Gehigarriko 8. apartatuaren arabera, espeditietan 20 egun egongo da jendaurrean jarrita, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarri hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesaturik daudenek egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkezteko.

Epe horrek dirauen artean, ikusi eta aztertu nahi duenaren esku egongo da espeditietan Tolosaldeko Udaltzako Hirigintzako Bulegoan, Plaza Zaharra, 6-B eraikinean. Alegazio edo erreklamazioak erakin horretan bertan dagoen Sarrera Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira, Udaleko alkate-lehendakariari zuzenduta.

Hitzarmena behin betiko onartutaz joko da, alegaziorik ez bada aurkezten jendaurreko informazio epeldiaren barruan.

Tolosa, 2008ko apirilaren 22an.
ALKATEA.

Tolosako Udala
IRAGARKIA

Tolosako Udaltzatik, 2008ko apirilaren 16an egindako bileran, hasierako onepena eman zion Hiru Ordenazioko Plan Orokorreko Sta. Maria de la Asunción Klinika Hirigintzako Egitaritza Hitzarmenaren proposamenari, Jesus Gomez Montoya, INVIZA, S.A.-ren izenean aurkeztuak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko Zazpigarren Xedapen Gehigarriko 8. apartatuaren arabera, espeditietan 20 egun egongo da jendaurrean jarrita, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarri hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesaturik daudenek egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkezteko.

Epe horrek dirauen artean, ikusi eta aztertu nahi duenaren esku egongo da espeditietan Tolosaldeko Udaltzako Hirigintzako Bulegoan, Plaza Zaharra, 6-B eraikinean. Alegazio edo erreklamazioak erakin horretan bertan dagoen Sarrera Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira, Udaleko alkate-lehendakariari zuzenduta.

Hitzarmena behin betiko onartutaz joko da, alegaziorik ez bada aurkezten jendaurreko informazio epeldiaren barruan.

Tolosa, 2008ko apirilaren 22an.
ALKATEA.



LABen deialdiari erantzunez, Asteasuko industriagunean langile ugari elkartu ziren. ASIER IMAZ

Lan Osasunaren Egunean lanuzteak egin dituzte LABek deituta hainbat lantegitan

Ekonomia » LABen esanetan «erantzun zabala» izan zuen deialdiak eskualdeko lantegietan atzokoan.



Apatta-Errekan ordubeteko lanuztea egin zuten langileek. ASIER IMAZ

ASIER IMAZ

Lan Osasunaren Nazioarteko Eguna ospatu zen atzo. LAB sindikatuak «aldarrikapen eta borroka» eguna bilakatu zuen, ordubeteko lanuzteetara deitu zituelarik 12:00etatik 13:00etara *Lan batzuku hil, beste batzuku kondenatu* lelopean.

Deialdiak eskualdean «erantzun zabala» izan zuela aipatu zuen LABek bere balorazioan: «Alde batetik lan istripuz hildako langile guztiei elkartasuna adierazteko asmoz atera gara. Bestetik prekarietateak hil egiten duela eta lan istripu eta gaixotasunak ekiditeko patronalak eta instituzioek ez dutela neurri nahikorik hartzen salatu dugu langileok gaurko egu-

nean. Datuak argiak dira, behin-behinekotasunak, lan erritmo azkarrek... hil egiten dute. Enpresariak euren mozkinak handitzea beste helbururik ez dute, laneko segurtasuna gastu bat legez ulertzen dute».

LABek eginiko balorazioan, mutuen jarrera ere salatu nah izan zuten, «enpresen mesedetara» lan egiten dutela azalduaz; «laneko gaixotasunak gaixotasun arrunt legez hartuz, altak langilea sendatu gabe dagoela emanez... instituzioek ere ez die presiorik egiten enpresei».

Lanuztearen jarraipena

LABek zabaldu dituen datuetan aipagarrienak ondoren: «Emusin tailer osoa geratu da, 45 langile bildu direlarik; Unipapelen 45 langile irten dira; Asteasuko industriagunean 60 langile, Echesa, Bost, Leibi eta Sodesatik; Apatta-Errekan 40, Voith, Gorostidi eta Oker enpresetako langileak; S.A.M. en 40; Insuluzen 25; Villabonako Udalan 18; Zizurkilgo Udalan 15; Tolosako Udalan 25; Ibarako Udalan 9 langile irten dira eta Endakin 24, Komiteak deituta, bertan ELAko ordezkariek daude».



208 kiloko Gorostidi Harria bederlatzi aldiz berdin duen Irigoienek. A. OTEZABAL

Aimar Irigoien nagusi Adunako II. Gorostidi Harria Txapelketan

Herri kirolak » Bederlatzi aldiz altza zuen errezildarrak 208 kiloko harria, Ostolaza bost jasoalditan gelditu zen.

eta ustel eman zion epaileak. Lanerdietan lau jasoaldi zituen eginak zestoarrak, jasoaldi garbiak eginda.

Ondoren Aimar Irigoien errezildarra plazaratu zen, eta azkenaldian egin duen legez, neurri neurrian burutu zuen lana. Bederlatzi jasoaldi egin zituen bata bestearen atzetik eta huts nabarmenik egin gabe. Amaieran txalo sorta luzearekin eskertu zuen Adunako pilotalekura hurbildu zen jendetzak harri-jasotzaile gaztea, ez baitzen gutxiagorako izan Irigoienek ezarritako marka.

ERREDAKZIOA

II. Gorostidi Harria Txapelketa Adunan jokatu zen herenegun. Izen handiko bi harri-jasotzaile gipuzkoar jardun ziren elkarren aurka txapelketan; hots, Joseba Ostolaza eta Aimar Irigoien. Iñaki Gorostidi harri-jasotzaile adunarrak bere garaian erabilitako 208 kiloko zilindro zahararekin neuritu zituzten indarrak, bosna minutu txanda bakarrean.

Lehenik Ostolaza aritu zen lanean, eta bost jasoaldi egin zituen. Seigarrena egiteko ahalegina ere egin zuen, baina ez zuen behar bezain ondo pausatu bizkar gainean

61 urterekin sasoiari

Harri-jasotze txapelketa jokatu aitzin, Joxemari Mendizabal aizkolari ohia aritu zen zutikako kanakoa ebakitzen. 61 urteko adunarrak oso egoki erdibitu zuen enborra 25 minutu eta 40 segundotan.

Laburrak

Txozna batzordearen bilera gaur 20:00etan

IBARRA » Urtero bezala San Bartolome jaietan eta Gazte Festetan txoznak jarriko dira. Txoznen antolakuntzaz hitz egiteko bilera egingo dute gaur Benito Izagirre kultur etxean 20:00etan.

Ekzer abertzalearen batzarra gaur 20:30ean

AMEZKETA » Gaur balioanitzeko egelan herri batzarra egongo du ekzer abertzaleak 20:30ean. Bertan aztertuko diren gaiak: hauteskundeak eta hemendik aurrera eman beharreko urratsak.

Hilberriak

LUIS AGINAGA IZAGIRRE

(Pilar Balerdiren alarguna)

Aprilaren 28an hil zen, 80 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

- Goian bego -

Bere animaren zuzendaria: Iñaki Zubeldia; seme-alabak: Hilario, M^{te} Teresa, Paula eta M^{te} Jose; anai-arrebak: Maria (Juan Ormaetxearen alarguna), Carlos eta Sagrario Arozena, Juan eta Kontxi Arozena; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusua eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoiitz bat eskatzen dizute eta arren etor zaitzela GAUR ASTEARTEA, arratsaldeko SEIETAN, SANTA KATALINA parroki elizan, GORPUIA BERTAN dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

LIZARTZAN
2008ko apirilaren
29an

Helbidea: Iurralde etxea.
Oharra: Gorputz beila Tolosako Funeraria Vascoganda Tanatorioan dago.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

43 korrikalarik hartu dute parte Loatzoko XVI. Krosean

Amasa » Nerea Amilibia izan zen lehenengoa emakumezkoetan eta gizonezkoetan, Juan Mari Garin alegiarra.

N. GARZIA

Herenegun Loatzoko XVI. Krosean 43 pertsonak hartu zuten parte. Juan Mari Garin izan zen gizonezkoetan irabazlea, eta Nerea Amilibiak emakumezkoetan.

Jende gutxiago

Joan den urtean 70 korrikalarik parte hartu zuten eta aurten parte-hartzea nabarmen jaitsi da. Antolatzaileek azaldu dutenez, «esan zuten egun berean beste 2 proba zudean, Zarautzen eta Errenterian, eta krosetan parte hartzen duen jendea banatu egin zen».

43 parte-hartzaileetatik 4 soilik izan ziren emakumezkoak. Lehenengo Nerea Amilibia iritsi zen, (53 minutu eta 31 segundotan) eta hamairugarren gelditu zen sailkapen orokorrean. Aitziber Ibarbia izan zen emakumezkoetan bigarrena (58 minutu eta 29 segundo), eta sailkapen orokorrean hogeitabigarrena gelditu zen. Idoia Ezeizak hirugarren postua eskuratu zuen (ordubete eta 55 segundo), eta sailkapenean hogeitabederatzigarrena gelditu zen.

Gizonezkoek dagokienez, Juan Mari Garin izan zen lehenengoa (43 minutu eta 32 segundo), Fernando Etxegarai bigarrena, (44 minutu eta 26 segundo) eta Jokin Lizeaga hirugarrena (45 minutu eta 22 segundo).

Lehenengoek 120 euro eskuratu zituzten, bigarrenek 80 euro eta hirugarrenek 60 euro.



Zutikako lanean Rekondok 6 segundo atera zizkion Arriari larunbatean. N. GARZIA

Rekondoren eta Arriaren arteko lehia, hagitz estua

Leitza » Berdinketa lortu zuten zatorren larunbatean berriro elkarren aurka ariko dira, Idiazabalen.

NAIARA GARZIA

Larunbatean Leitza Urrezko Aizkorako Banakako Txapelketan Rekondok eta Arriak berdinketa lortu zuten, bertan bildu zen jendearen harri durarako, ez baita oso ohikoa izaten. Final-zortzirenak jokatu zituzten Amazabal pilotalekuan eta aurreko asteburuan bezalaxe, herriko frontoia jendez lepo bete zen.

Orotara 4 proba gainditu behar izan zituzten erreizildarrak eta leitzarrak. Lehenengo lanean berdinketa lortu zuten, bigarrenengoan Arriak 3 segundo atera zizkion, baina zutikakoan Rekondok 6 segundo atera zizkionez, 3 segundo-ko abantailarekin iritsi zen azkeneko probara. Amaieran lehia estua eskaini zuten eta biek 10 minutu eta 6 segundotan amaitu zuten.

Hurrengo, Idiazabalen

Leitzako saioa eta gero, datorren igandean berriro lehiatu beharko dira 2 aizkolaria, Idiazabalen. Bertan lau lan egin ordez, bost egin beharko dituzte, eta irabazle suertatzen dena, final-laurdenetarako ligaxkarako sailkatuko da.

Elite kategoriako ligaxka atzo hasi zen, Gasteizen, Armentian Olasagasti eta Larretxea lehiatu baitziren. Talde honetan ariko den

hirugarren aizkolaria datorren larunbatean jakinen da zein den, Arriak eta Rekondok norgehiagokajokatzen dutenean.

Beste kategoriak

Gainera, 23 urtetik beherakoek txapelketaren lehen saioa jokatu zuten larunbatean Leitza, Vazquezek Gorritiri irabazi zion.

18 urtetik beherako aizkolariei dagokienez, bigarren buelta egin zuten Saralegi, Olano eta Rodriguezen artean, eta haueetatik Saralegi leitzarrak irabazi zuen. Bera sailkatu da, beraz, finalerdietarako, Oihan Larretxea, Ander Erasun eta Julen Kañamarek jada sailkatuak baitaude.

Patxi Astibia aizkolaria ohia beriz izan zen eta oso saio «hunkugarria» izandu zela dio. Lehenengo lanean berdinketa lortu zuten 2 aizkolariek eta bigarrenengoan Arriak 3 segundo kendu zizkion. Zutikakoan 6 segundo atera zizkion Rekondok, eta beraz azkene-

ko frogara iritsi zirenean Rekondok 3 segundo zituen bere alde.

Azkeneko 4 egurretan Rekondo abantailarekin hasi zen. «Lehenengo 3 egurretan Rekondok aurrera hartu zion, eta hortik aurrera garbi ikusten zen kolpe bateko alde izanaren zutela. Jendea azkenean zutik jarri zen».

Amaitu ondoren epaileak saioa baliogabetu egin zuela dio Astibia, 2 aizkolariek berdinketa lortu zutelako. «Hau oso gutxitan gertatzen den gauza bat izaten da, neronek ere 2 aldiz soilik egin izan dut».

Rekondoren lana

Rekondori dagokionez, «oso ongi» aritu zela dio Astibia, izan ere, saioa hasi aurretik gehienek Arriak irabaziko zuela pentsatzen zuten. «Rekondo inoiz baino hobeto ikusi nuen». Datorren larunbatean 2 aizkolariek elkarren aurka jokatu beharko dute berriro, final-laurdenetarako zein sailkatzen den erabakitzeke.



Eskualdeko dantzariak elkarrekin dantzatu zuten. A. OTEZABAL

Antolatzaileak «gustura», Dantzari Txiki Egunarekin

Ikaztegieta » Eskualdeko 175 dantzari txiki elkartu ziren eta ordu eta erdiko emanaldia egin zuten herriko plazan.

N. GARZIA

Joan den igandean Ikaztegieta I. Dantzari Egunean Tolosaldeko 9 herrietako dantzariak bildu ziren: Ikaztegieta, Alegiakoak, Villabonakoak, Altzokoak, Anoetakoak, Ibarrakoak, Irurakoak, Alkizakoak eta Tolosakoak.


Guztira 175 dantzari txiki elkartu ziren 10:30ean kiroldegian eta ondoren, kalejiran plazaraino joan

ziren. Hamaiketakoak egin eta gero, talde bakoitzak bina dantza egin zituen, eta bukaeran denek batera dantzatu zuten.

Hamaiketakoak Guraso Elkarteak prestatu zuen eta barra ere jarri zuten, ateratako dirua herriko dantza taldearen beharretan inbertituko dute.

Balorzioa

Helena Larrañaga kultur zinegotziak azaldu duenez, «ondo» joan zen dena. «Dantza saioa 12:00etan hasi zen eta oso koordinatuta egon zen. Ordueta erdiko emanaldia izan zen, umeak oso gustura aritu ziren eta gu antolatzaile bezala ere gustura gelditu gara».



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leizaldekoko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Ibarra.** Maiatzaren 7an Izaskun-go erromerian egingo den bazkarako txartelak, Bizi nahi elkartearen 25 eurotan (bazkide ez direnek 30 euro).
- **Ikaztegieta.** Herri Urratsera maiatzaren 11n joateko Udalak autobus antolatuta du. Izena Udaltzako bulegoan eman behar da. 6 euro balio du.
- **Tolosa.** Gaur eta bihar 10:00etatik 14:30era ziklotoreen errebisioa egingo da Ferialekuan. Txanda eskatu behar da Udaltzaingoan (943-675858).
- **Tolosa.** Ostegunetan izango dira sanjoanetako Bordondantzarako entseguak 20:30etik aurrera Usabal kiroldegian.
- **Villabona.** Villabonako Udaleko Euskara Zerbitzuak Amodiozko Gutunen Lehiaketa martxan jarri du. Lanak udaletxean entregatu behar dira

Ikastaroak

- **Alkiza.** Ukenduak egiten ikasteko ikastaroa (intsusa, kalendula, berbena, eta abar) antolatuta dute maiatzerako, astelehenetan edo asteazkenetan Pili Otaegirekin 15 eurotan. Izen-ematea, Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatean (943 693930).
- **Tolosa.** Gizarte parte-hartzeari buruzko prestakuntza ikastaroak

doan Antonio Maria Labaien kultur etxean maiatzaren 13, 14 eta 15ean, 19:00etatik 21:00etara. Izen-ematea, Baketik (943 251005, www.baketik.org, partehartu@baketik.org).

Kirola

- **Alkiza.** Maiatzaren 11n Erniopeko VI. Mendi Ibilaldia izango da Alkizatik abiatuta. Bi neurri: 48 km eta 25 km. Izen-ematea, 943 690235 telefonoan edo Alkizako plazan ibilaldiko egunean bertan, 05:00etan.
- **Berastegi.** Basurde elkarteak XVI. Ibilaldi Neurtua antolatuta du maiatzaren 4rako, 07:00etan abiatuta, inguruko mendietan. Izen-ematea, Zelai tabernan, 630 806080 zenbakian, basurde@komunikazioa.org helbidean edo irteeran. Sei ordu eta erditik 8 ordura irauten du.
- **Tolosa.** XIV Orduko Martxa maiatzaren 18an izango da. Izen-ematea, Aralarko Adiskideen elkartearen egin daiteke (Araba etorbidea 5) edo a.adiskideak@terra.es helbidean.

Irteerak

- **Tolosa.** Harizpe jubilatuta eta pensiodunen elkarteak irteera antolatuta du Atapuerca eta Burgosera maiatzaren 13rako. Izena eman nahi dutenek 30 euro (33 euro

bazkide ez direnek) ordaindu beharko dute.

- **Tolosa.** Harizpe jubilatuta eta pensionista elkarteak Saloura irteera antolatuta du ekainaren 1etik 15era pensio osoan. Izen-ematea, elkartearen 395 eurotan (bazkide ez direnek 401 euro).
- **Tolosa.** Iturriza jubilatuta elkarteko Peñiscolar irteera antolatuta du maiatzaren 18tik ekainaren 1era 410 eurotan (bazkide ez direnek 415).
- **Tolosa.** La Jara zentroak Extremadurara irteera antolatuta du maiatzaren 1etik 4ra Jerte bailara, Coria, Alcantara eta Caceres bisitatuz. Prezioa: 240 euro. Izen-ematea, 675 707619 telefonan.

Erakusketa

- **Alegia.** Alegiko jubilatuen tabernan Lucia Arenas tolosarraren margolanak izango dira ikusgai. Asteartetik igandera bitarte, tabernaren ordutegiaren baitan.
- **Tolosa.** Artea Oinez 08 erakusketa Aranburu Jauregian Nafarroa Oinez 08k antolatuta. Gaur 19:00etan, inaugurazioa egingo dute.
- **Tolosa.** Miren Gonzalez Goikotxea margolari tolosarraren *Zaborrontziak* erakusketa Leidor aretoa, Naturaldia jardunaldien barruan.
- **Tolosa.** Encarna Mejia margolari alegitarren olio-pinturak ikusgai Itae taberan.

- **Tolosa.** Angel Arbe artistaren *Biogeometriak* lanen erakusketa Aranburu Jauregian.
- **Tolosa.** Jose Bach Riu margolari kataluniarren lanak Lanbroa tabernan. Paisaiak dira eta euskal gaia ere agertzen da.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

A Agurrak



Urte askoan!

Axun Zabaleta (Amarotz).
Zure seme-alaben eta biloben partetik. Ondo pasa!



Urte askoan!

Olatz Dorronsoro Eizmendi.
Atzo 8 urte. Zorionak Jon eta denon partetik.


agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitzaan: Udaletxeko bulegoa

agurrak



'121 amu' KOSTALDEA EZAGUTZEKO'
liburua

Maiatzak 10, larunbata
kartilla eta 1. kupoia
berriarekin

